

ENPRESEN konfiantza

2020KO 2. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


2020KO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2020ko bigarren hiruhilekorako** dituzten igurikimenen berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu. Aurreko hiruhilekotik hobekuntza nabaritu da, baina, zantzuen arabera, nolabaiteko zailtasun-aldia dugu aurrean. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

Enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten aurreikuspenei dagokienez, % 57,9k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 10,3k hobetu egingo dela. Ikus daitekeenez, aurreko hiruhilekoan baino apur bat baikorragoa da ikuspegia.




1 FAKTURAZIOA

Enpresek FAKTURAZIOAREN harira dituzten aurreikuspenek hobera egin dute **2020ko bigarren hiruhilekoari** begira: % 55en ustez, mantendu egingo da eta % 28,6ren ustez, hobera egingo du. Enpresen % 16,4k uste du fakturazioa txarragoa izango dela.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, **2020ko bigarren hiruhilekoan JARDUERAK** bere horretan segituko duela uste dutenen kopurua % 63,3koa da, eta egoerak hobera egingo duela uste dutenena % 14,5ekoa. Baina laginaren % 22,2k uste du jarduerak okerrera egingo duela.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute saldutako kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Emaitzek diote ESKABIDE-MAILAK hobera egingo duela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 56,3k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 26,7k hobera egingo duela. Enpresen % 17k, ordea, eskabideen bolumenak behera egingo duela uste du.




4 | PREZIOAK

PREZIOEI dagokienez, emaitzak zertxobait hobek dira: inkesta egin dutenen % 74,9k uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela **bigarren hiruhilekoan**. Gainerako enpresen artean, % 11,6k erantzun du prezioak igo egingo direla eta % 13,5ek behera egingo dutela.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNAREN inguruko aurreikuspenei dagokienez, inkestari erantzun diotenen % 67,2k «berdin» jarraituko duela uste du, enpresen % 13,8ren iritziz, handiagoa izango da, eta % 19k, azkenik, etekin txikiagoak espero ditu.



6 | INBERTSIOA


Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera **aurreko hiruhilekoan** baino pixka bat hobea da. Eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboari eusteko asmoa dutela, eta, azken finean, langileen kopurua handitzekoa.

INBERTSIO-BOLUMENARI dagokionez, enpresen % 64,6k uste du eutsi egingo diotela 2020ko bigarren hiruhilekoan. % 18,3k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 17k uste du behera egingo duela.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 77,8k erantzun du ENPLEGUAN ez dutela aldaketarik espero; % 13,8k langile-taldea handitzeko itxaropena du eta % 8,4k guztiz kontrakoa, plantilla murriztu egingo duela.




2020KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu konfiantza-indizea eskuratzeko, emaitza hau lortuko dugu: **51,6**. Beraz, aurreko hiruhilekoko **42,2**ko datuarekin alderatuta hobekuntza izan da. Horrek esan nahi du enpresek ikuspegi baikorragoa dutela ekonomiak **2020ko bigarren hiruhilekoan** izango duen bilakaerari buruz. Indizea 50 puntutik gora egonik, hedapen-eremuan gaude. Datu hori bat dator beste esparru geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin, hala nola Espainian (urtarrileko datua: 51,5) eta Eurogunean (urtarrileko datua: 51,3) jaso dituztenekin.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 48,5ek uste du bere horretan jarraitu duela eta % 27,9k hobera egin duela. % 23,5en iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZARI EDO I+G EKIMENEI bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 77,5 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 8,6k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 78,8rentzat, BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAN ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 17,2ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 4k erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestauen % 80,1ek erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 11,3k dio hobetu egin dela, eta % 8,6k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2020AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Hurrengo irudian ikus daitezke aztertutako azken bi hiruhilekoetako adierazle partzialen eta aurreikuspen orokorraren balioak.

Enpresen aurreikuspenak



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta
